



## EAEko KPI indizea %6,9 hazi zen urrian




Iturria: INE.

**Urrian, EAEko KPIaren urte arteko tasa %6,9an kokatu zen, azken bederatzi hilabeteetako baliorik txikiena baita.** Moteltze hori argindarraren merkatzeari esker lortu da. Aitzitik, elikagaiek garestitzen jarraitzen dute, eta beren urte arteko tasa %15,3ra iritsi da.

## EAEko aireportuak erritmoa berreskuratzen ari dira

**Aireportuetatik bidaiatu duten pertsonak**  
Urte bakoitzeko urtarriletik urrira bitartean. Mila



Iturria: AENA.


**2022ko lehen hamar hilabeteetan, 4,8 milioi pertsona baino gehiago pasa ziren EAEko aireportuetatik.** Zifra hori gorakada handia da aurreko bi urteetako emaitza apalaren aldean. Hala ere, oraindik ez du berreskuratu pandemiaren aurreko urteetan izan zuen trafikoa, 5 milioi bidaiaria baino gehiago egin baitziren urte horietan.



## Esportazioak %21,8 areagotu ziren irailean

### Atzerrira esportatutako ondasunak

Urtarriletik irailera bitartean. Milioiak




Iturria: Eustat.

Irailean, atzerrira bidalitako ondasunen esportazioak %21,8 handitu ziren aurreko urtearekin alderatuta. Aurtengo lehen bederatzita hilabeteetan, EAEko produktuen salmenta 24.000 milioi eurotik gorakoa izan da. Serie historiko osoan erregistratu den kopururik handiena da hori.

## Etxebizitzen salmenta %4,2 hazi zen irailean

### EAEn saldutako etxebizitzak

Urte bakoitzeko urtarriletik irailera bitartean



Iturria: INE.

Irailean, EAEko etxebizitzaren salmentak %4,2 egin zuen gora urte arteko aldakuntza tasan. Horri esker, aurtengo lehen bederatzita hilabeteetan 18.764 etxebizitza saldu dira guztira. Zenbaki hori 2007tik jaso den kopururik handiena da.